

OHARRA

Udanako bide mozketak

Oñatiko Udalak jakin badaki herritarrak kexu direla Udanako bide mozketak dituen eraginez. Bada, lehen unetik, harremanetan jarriak gara Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Legazpiko Udalarekin, arazoari irtenbidea emateko konbikzioz. Besteak beste, jakinarazi gura dugu Gipuzkoako Diputaziora bideratzen gabiltzala egunotan udaletxean jasotzen ari garen kexak, erakundea arazoaren garrantziaz jabe dadin. Horri loturik, esatea, gura duenak udal webgunean duela eskuragarri kexak helarazteko formularioa. Bien bitartean, Oñatiko Udalak buru-belarri segituko du Oñatiren eta Legazpiren arteko mugikortasun arazoarendako eta gisakoendako irtenbide lirakeen alternatibak eraikitzeko lanean. Berriren bat izatean helaraziko dugu informazio gehiago.